

# BESTELAKO XEDAPENAK

ELANKIDETZA-LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIA

4706

*EBAZPENA, 2024ko irailaren 27koa, eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariarena, 2024rako genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketako prozesuak bultzatzeko lankidetza-erakundeei laguntzak ematea ebazten duena.*

Martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuak (apirilaren 9ko EHAA, 67. zenbakia) genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketako prozesuak bultzatzeko lankidetza-erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen ditu.

eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariaren 2024ko ekainaren 6ko Ebazpenaren bidez (ekainaren 21eko EHAA, 121. zenbakia), 2023rako genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketako prozesuak bultzatzeko lankidetza-erakundeei emateko laguntzak deitu ziren.

Aipatutako deialdiaren ebazpenaren 5. artikuluan izendatutako Hautaketa Batzordearen laguntzak emateko proposamena ikusita, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak laguntzen eskaeren azterketa teknikoa eta balorazioa egin ondoren, hau

## EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariaren 2024ko ekainaren 6ko Ebazpenaren bidez deitutako laguntzak ematea ebazpenaren I. eranskinean zehazten diren entitateei, bertan adierazitako zenbatekoarekin eta baldintzetan; eta II. eranskinean zehazten diren entitateak kanpoan uztea, azaldutako arrazoiengatik.

Bigarrena.— Ebazpen hau jakinaraztea entitate interesdunei.

Hirugarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin agintzea, guztiek jakin dezaten.

Laugarrena.— Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, beraz, horren aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako presidenteari, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsua jarri zenetik hiru hilabete igaro eta ebazpenik eman ez bada, ezetsizat jo ahal izango da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekita geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailaren 27a.

eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendaria,  
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

I. ERANSKINA  
DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK

| Helburua                                                                                         | Espedientea     | Erakunde eskatzailea                     | Puntuak | Dirulaguntza (euro) |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------|------------------------------------------|---------|---------------------|
| Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa  | GBA-2024BA/0003 | Fundación Interred                       | 85      | 21.042,91           |
| Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa  | GBA-2024BA/0001 | Medicus Mundi Bizkaia                    | 83,5    | 39.024,86           |
| Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa  | GBA-2024BA/0009 | Cruz Roja Española                       | 76      | 41.999,37           |
| Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa  | GBA-2024BA/0006 | Emaus Fundacion Social                   | 60,5    | 40.376,77           |
| Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa  | GBA-2024BA/0010 | Asociación Entretanto Bitartean Jolasean | 52,5    | 21.785,19           |
| Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa  | GBA-2024BA/0011 | Soziolinguistika Klusterra               | 51,00   | 12.425,86           |
| Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikokoaren Implementazioa eta haren Ebaluazioa | GBA-2024BA/0008 | Fundación Etiopia Utopia                 | 85,99   | 39.600,00           |
| Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikokoaren Implementazioa eta haren Ebaluazioa | GBA-2024BA/0002 | Setem – Hego Haizea                      | 85,3    | 40.000,00           |
| Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikokoaren Implementazioa eta haren Ebaluazioa | GBA-2024BA/0004 | Un Etxea Asociación Del Pais Vasco       | 65      | 38.278,45           |

II. ERANSKINA  
BAZTERTUTAKO ESKAERAK

| Espedientea     | Erakunde eskatzailea                                           | Baztertze arrazoia                                                                                                                                                                                                  |
|-----------------|----------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| GBA-2024BA/0005 | Prestaturik Asociación de Profesionales Extranjeros de Euskadi | Proiektua baztertua geratzen da, genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuak sustatzeko laguntzak arautzen dituen martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuaren 7.1.b) artikuluko atalean sartzen delako |
| GBA-2024BA/0007 | Garabide Kultur Elkartea                                       | Proiektua baztertua geratzen da, genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuak sustatzeko laguntzak arautzen dituen martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuaren 10. artikuluko atalean sartzen delako    |